



Guraso agurgarriok,

Idatzi honekin maiatzaren 10ean gure Ikastolan Wolf Hirschhorn Sindromearen alde antolatu zen azokarako egin zenituzten ekarpenak eskertu nahi dizkizuegu.

Guraso eta ikasleengandik jaso genuen erantzuna izugarria izan zen, material pila bat bilduz. Egunean bertan ere lortutako emaitzak, horrelakoak izan dira. Guztira 6.335 € lortu dira.

Gure helburua Inar eta Hugori laguntzea zen eta diru honekin, Madrileko Severo Ochoa ospitalean aurrera eramaten ari diren diagnosi ikerketan beste mutiko bi sartzea lortu dugu.

Gauza gutxirekin, asko lortu daitekeela ikasi dugu eta denon artean lortu ere!

Eskerrik asko guztioi.

DBH 2Bko ikasleak